## ESANAK

**XABIER ARZALLUZ**
(EAJko EBBko presidentea)

«Gu ere mehatxatuta gaude, baina ETAkoak bagina bezala hartzen gaituzte Madrilen»

**JOSEBA EGIBAR**
(EAJko EBBko bozeramailea)

«Abertzaleak hiltzean 'lepoan hartu eta segi aurrera' diogu; guri gertatuz gero, gauza bera esango dute»

«Zerrendak izanik ere, EAJ eta ETA gauza bera direla esaten aritu dira. Zein da doilorra?»

**JOSU JON IMAZ**
(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«ETAk gizarte osoa mehatxatzen du, baita demokrazian oinarrituz lanean ari garenok ere»

**LEOPOLDO BARREDA**
(PPko legebiltzarkidea)

«Ez dakit Arzalluzek biktimismoa egin nahi duen, edo ETArekin ari direlako kontua desbideratu nahi duen»

## PP-RI KRITIKAK

# «Ustelkeria» leporatu dio Arzalluzek Aznarri

Xabier Arzalluz EBBko presidenteak Espainiako Gobernuaren «erasoak» salatu zituen atzo Barakaldoko Gurutzetako batzokian, eta EAJ ez dela kikilduko azaldu zuen: «Kontraerasora jo behar dugu». Jose Maria Aznar Espainiako presidenteari «ustelkeria» leporatu zion.

«Administrazio kontseiluak Gobernutik zuzentzen dituzte. Hori makurra da, ustelkeria da. Ustelkeria, duen botere politikoa profitatuz, besteen baliabideak norberaren onurarako erabiltzea da. Hori da egiten ari dena, eta oso larria da». Aznarrek «turkiar erara» gobernatzen duela esan zuen: «Laguntxoei dena ematen die, eta, laguntxoa ez denari, egurra». Banketxeeketa beldurra diotela dio, guztiek behar dutelako «Gobernuaren esku-hartzeren bat», eta «bat ez datorrena jo eta zapaldu» egiten dutelako. Espainiako komunikabideetan «pentsamendu bakarra» dagoela uste du.

Madriletik «eraso orokorra» datorrela dio Arzalluzek, eta «kontraerasorako» gertu da. Ertzaintzaren, ekonomiaren, irakaskuntzaren eta euskararen aurkako saioak egongo direla iragarri zuen: «Ahal dutena egingo dute ostera ere Guardia Zibila sartzeko», haren esanetan; «diru aldetik gu itotzen saiatuko dira, inbertsioetarako dirurik gera ez dakigun». PP irakaskuntza sisteman sartu eta euskararen aurka «ahal duten guztia» egingo duela adierazi zuen. «Argi eta garbi azaltzen ari dira euskara ez dela espainiarra, eta haien kezka bakarra mapatik ateratzea da».

Erasoen aurrean ez dela beldurrik izan behar uste du Arzalluzek, eta ez dutela «haien proiektuak aurrera ateratzen» lagunduko: «Saman soka ipintzen badigute, ez dugu sokatik tira egingo». Maiatzaren 13an gertatu bezala, PPkoak berriro «burumakur» irten daitezkeela dio.

bat abertzale erail dituenean gure erantzuna beti bera izan dela: Lepoan hartu eta segi aurrera. Eta gutako edozeini antzekorik gertatuko balitzaio, ETAk garbi eduki beza, beste batzuk lekukoa hartu eta gauza bera esango dutela: Lepoan hartu eta segi aurrera».

Bestetik, Josu Jon Imaz EAEko Jaurlaritzako bozeramaileak adierazi zuen jakinaren gainean zeudela. «Beraz, kuantitatiboki gehiago edo gutxiago agertzea izan daiteke larritasuna». ETAk euskal gizarte osoa mehatxatzen duela erantsi zuen. Joseba Azkarraga Justizia sailburuak adierazi zuen zerrendak duela bi edo hiru urte eginak direla, orain ezagutu diren arren.

Javier Rojo PSE-EEko Arabako idazkari nagusiak elkartasuna agertu zion EAJri, «inork ez baitu merezi mehatxatua izatea». EB-IUko Antton Karrerarentzat, berriz, ETAk «ahal duenean eta ahal duena» hiltzen duela adierazten dute informazio horiek.

Leopoldo Barreda PPko legebiltzarkideak Arzalluz kritikatu zuen, eta «biktimismoa egin nahian edo gaia desbideratu nahian» ari den galdetu zion.





Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

# Solicitudes de ingreso

## Curso 2002-2003

**Licenciaturas / Ingenierías**
• Derecho
Especialidad Económica
• Historia: Antigua y Medieval
Moderna y
Contemporánea
(Bilbao)
• Historia: Patrimonio Cultural
(San Sebastián)
• Filología Hispánica
• Filología Inglesa
• Filología Vasca
• Humanidades: Empresa
Comunicación
(San Sebastián)
• Filosofía
• Psicología
• Pedagogía
• Psicopedagogía (2.º ciclo)
• Antropología Social y Cultural (2.º ciclo)
• Administración y Dirección de Empresas (Bilbao y San Sebastián)
• Estudios Eclesiásticos (Bachillerato en Teología)
• Sociología
• Ingeniería en Informática (2.º ciclo)
• Ingeniería en Organización Industrial (2.º ciclo)
• Ingeniería en Automática y Electrónica Industrial (2.º ciclo)
• Ingeniería de Telecomunicación (2.º ciclo)

**Diplomaturas / Ingenierías Técnicas**
• Educación Social
• Turismo (Bilbao y San Sebastián)
• Trabajo Social
• Ciencias Religiosas
• Ingeniería Técnica en Informática de Gestión (Bilbao y Vitoria)
• Ingeniería Técnica Industrial, especialidad en Electrónica Industrial
• Ingeniería Técnica de Telecomunicación, especialidad en Telemática

**Otros Estudios**
• Secretariado de Dirección

**Plazos de entrega:**
Estudios en Bilbao y Vitoria, del 4 de febrero al 15 de mayo.
Estudios en San Sebastián, del 15 de enero al 10 de mayo.
La Universidad permanecerá cerrada del 27 de marzo al 7 de abril

**Horario:**
De 9.30 a 12.30 y de 16.00 a 18.00 horas, de lunes a viernes

**Información y obtención del impreso de solicitud:**
Estudios en Bilbao y Vitoria:
Secretaría General
Avda. de las Universidades, 24
48007 Bilbao
Tels.: 944 139 000, 944 139 061 y 944 139 064 (Vitoria)

Administración y Dirección de Empresas (Bilbao):
Secretaría de La Comercial
Avda. de las Universidades, 24
48007 Bilbao
Tels.: 944 139 262 y 944 139 263

Estudios en San Sebastián:
Secretaría General
Camino de Mundaiz, 50
20012 San Sebastián
Tel.: 943 326 600

# Sartzeko eskaerak

## 2002-2003 ikasturtea

**Lizentziaturak / Ingeniaritzak**
• Zuzenbidea
Ekonomia Espezialitatea
• Historia: Antzinaroko eta Erdi
Aroko Mundua
Modernoa eta
Garaikidea
(Bilbo)
• Historia: Kultur Ondarea (Donostia)
• Hispaniar Filologia
• Ingeles Filologia
• Euskal Filologia
• Giza Zientziak: Enpresa
Komunikazioa
(Donostia)
• Filosofia
• Psikologia
• Pedagogia
• Psikopedagogia (2. zikloa)
• Gizarte eta Kultur Antropologia (2. zikloa)
• Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (Bilbo eta Donostia)
• Eliz Ikasketak (Teologiako Batxilergoa)
• Soziologia
• Informatikako Ingeniaritza (2. zikloa)
• Industri Antolaketako Ingeniaritza (2. zikloa)
• Industri Automatika eta Elektronikako Ingeniaritza (2. zikloa)
• Telekomunikazioko Ingeniaritza (2. zikloa)

**Diplomaturak / Ingeniaritza teknikoak**
• Gizarte Hezkuntza
• Turismoa (Bilbo eta Donostia)
• Gizarte Lana
• Erlijio Zientziak
• Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (Bilbo eta Gasteiz)
• Industri Ingeniaritza Teknikoa, Industri Elektronikako espezialitatea
• Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoa, Telematikako espezialitatea

**Bestelako Ikasketak**
• Zuzendaritzako Idazkaritza

**Eskaerak aurkezteko epeak:**
Bilboko eta Gasteizko ikasketak, otsailaren 4tik maiatzaren 15era.
Donostiako ikasketak, urtarrilaren 15etik maiatzaren 10era.
Unibertsitatea itxita egongo da martxoaren 27tik apirilaren 7ra

**Ordutegia:**
9.30 - 12.30 eta 16.00 - 18.00, astelehenetik ostiralera

**Argibideak eta eskaera-orriak eskuratzeko:**
Bilboko eta Gasteizko ikasketak:
Idazkaritza Orokorra
Unibertsitateetako etorbidea, 24
48007 Bilbo
Tel.: 944 139 000, 944 139 061 eta 944 139 064 (Gasteiz)

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (Bilbo):
La Comercial-eko Idazkaritza
Unibertsitateetako etorbidea, 24
48007 Bilbo
Tel.: 944 139 262 eta 944 139 263

Donostiako ikasketak:
Idazkaritza Orokorra
Mundaiz bidea, 50
20012 Donostia
Tel.: 943 326 600

944 139 000 | www.deusto.es